# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**7.618**

**646/2002 FORU AGINDUA, azaroaren 21ekoa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Horren bidez, 183 eredua onesten da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden zenbait sariren informazio aitorpenei buruzkoa, bai eta diseinu fisiko eta logikoak ere, ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkeztu ahal izateko.**

Abenduaren 18ko 111/2001 Dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren testu bategina onetsi zuen. Dekretu horretako 94. artikuluak, 4. idatz-zatiak, xedatzen duenaren arabera, hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egunetan Estatuko Loterien eta Apustuen Erakunde Nazionalak, Autonomia Erkidegoek, Gurutze Gorriak eta Itsuen Erakunde Ofizialak informazio aitorpen bat aurkeztuko dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik kanpo dauden sarien artetik zeintzuk ordaindu diren adierazteko. Aitorpen horretan, identifikazio datuez gain, eska daiteke hartzaileen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jasotzeko, eta, orobat, hartzaileek jasotako sarien zenbatekoa edo balioa, Arabako Foru Aldundiak horretarako zehazten duen kopurua gainditzen dutenean.

94. artikulu honetako 5 idatz-zatian Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen foru diputatuari baimena ematen zaio informazio aitorpen hau aurkezteko era eta lekua zehazteaz gain ordenagailuz edo telematika baliabidez zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezteko zein prozedura erabili eta zein egoera den egokia finkatzeko.

Arauzko aginduek xedatutakoa betetzeko eta salbuetsitako errenta horiei eta saritutako hartzaileei buruzko behar bezalako ezagupenak izaten errazteko, beharrezkoa da arautzea hori bete behar duten entitateek jarraitu beharreko bide formala.

Horren ondorioz, eta dagozkidan eskumenez baliaturik,

XEDATU DUT:

**Lehena.- 183 eredua eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarria onestea.**

**Bat**.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako zenbait sariren 183 eredua onesten da (Foru Agindu honetako I. eranskinean ageri da). Aipatu ereduak ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriaz gain, laburpen orri bat du, bi ale dituena: bata, administrazioarentzat eta, bestea, interesdunarentzat.

**Bi**.- Foru agindu honen II eranskinean jasotzen diren diseiku fisiko eta logikoak onesten dira, eta horietara egokitu beharko dira ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriak.

**Hiru**.- Nahitaezkoa da, beti ere, 183 eredua ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkeztea.

**Bigarrena.- Aitorpena egiteko betebeharra duten subjektuak.**

Estatuko Loterien eta Apustuen Erakunde Nazionalak, Autonomia Erkidegoek, Gurutze Gorriak eta Itsuen Erakunde Ofizialak 183 eredua aurkeztu behar dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden sariei dagokienez, baldin eta hartzaile eta egindako zozketa bakoitzeko 5.000 eurotik gora ordaintu badute.

Aurrekoa gora-behera, zozketa bakoitzeko 5.000 eurotik gorako sariak adierazi behar dituzte, saritutako hartzaileei zenbateko hori gainditzen ez duen zenbatekoa dagokienean.

**Hirugarrena.- Informazioaren xedea eta edukia.**

Egindako zozketa bakoitzerako, 183 ereduan jasoaraziko dira ondoren adieraziko diren datuak, foru agindu honen II eranskinean jasotako zehaztasunekin bat etorriz:

- Hartzaile sarituaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Ordenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**7.618**

**ORDEN FORAL 646/2002, de 21 de noviembre, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, por la que se aprueba el modelo 183 de declaración informativa de determinados premios exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, así como los diseños físicos y lógicos para su presentación por soporte directamente legible por ordendor.**

El artículo 94 apartado 4 del Decreto Foral 111/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, establece que el Organismo Nacional de Loterías y Apuestas del Estado, las Comunidades Autónomas, la Cruz Roja y la Organización Nacional de Ciegos, deberán presentar, en los treinta primeros días naturales del mes de enero del año inmediato siguiente, una declaración informativa de los premios que hayan satisfecho exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en la que, además de sus datos identificativos, podrá exigirse que conste en ella la identificación con nombre y apellidos y número de identificación fiscal de los perceptores, así como el importe o valor de los premios recibidos por los mismos que excedan de la cuantía que a estos efectos fije la Diputación Foral de Álava.

En el apartado 5 de este artículo 94 se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para que fije la forma y lugar de presentación de esta declaración informativa, así como el procedimiento y las condiciones en que proceda su presentación en soporte directamente legible por ordenador o por medios telemáticos.

Para dar cumplimiento a lo establecido en estos preceptos normativos y con el objeto de facilitar un adecuado conocimiento de estas rentas exentas y de los perceptores premiados resulta necesario regular el cauce formal que deben seguir las entidades que se hallan obligadas a su cumplimiento.

En su virtud y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

**Primero.- Aprobación del modelo 183 y del soporte directamente legible por ordenador.**

**Uno**.- Se aprueba el modelo 183 "Declaración informativa de determinados premios exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas" que figura en el anexo I de esta Orden Foral. Dicho modelo se compone de una hoja-resumen que consta de dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado, así como del soporte directamente legible por ordenador.

**Dos**.- Se aprueban los diseños físicos y lógicos que figuran en el anexo II de esta Orden Foral, a los que deberán ajustarse los soportes directamente legibles por ordenador.

**Tres**.- Será obligatoria, en todo caso, la presentación del modelo 183 en soporte directamente legible por ordenador.

**Segundo.- Sujetos obligados a declarar.**

Estarán obligados a presentar el modelo 183, Loterías y Apuestas del Estado, las Comunidades Autónomas, la Cruz Roja y la Organización Nacional de Ciegos, respecto de los premios exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que satisfagan por importe superior a 5.000 euros por perceptor y sorteo celebrado.

No obstante lo anterior, también deberán relacionarse los premios superiores a 5.000 euros por sorteo, cuando a los perceptores premiados les corresponda un importe que no supere esta cuantía.

**Tercero.- Objeto y contenido de la información.**

Deberán hacerse constar en el modelo 183 para cada sorteo celebrado y de acuerdo con las especificaciones contenidas en el anexo II de esta Orden Foral, los siguientes datos:

- Nombre y apellidos y número de identificación fiscal del perceptor premiado.

- Hartzaile sarituaren ordezkariaren izen-abizenak edo izen soziala eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Zehaztasun hori beteko da, ordezkariaren bidez hartzaile batek baino gehiagok partekaturiko sariak kobratzen direnean eta zenbatekoa guztira 5.000 eurotik gorakoa denean, nahiz eta banaka kopuru horretara ez heldu hartzaile eta zozketa bakoitzeko. Hori dela-eta, ez dira saritutako hartzailearen ordezkaritzat hartuko saria kobratzeko bitartekaritza lana besterik egin ez duten finantza erakundeak.

- Zenbatekoa guztira edo saritutako sariaren balorazioa.

- Zozketa eguna.

**Laugarrena.- 183 eredua aurkezteko lekua eta epea.**

**Bat**.- Euskarri magnetikoko 183 eredua honakoetan aurkeztuko da: edo, zuzenean Arabako Foru Ogasuneko bulegoetan edota bulego horietara zuzendutako posta egiaztatu bidez. Eredu horri Ogasun Zuzendaritzaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak emandako identifikazio txartelak itsatsi behar zaizkio nahitaez.

**Bi**.- Urte bakoitzaren urtarrileko lehendabiziko hogeita hamar egunetan aurkeztuko da 183 eredua, aurreko urtean ordaindutako sariei dagokienez.

**Bosgarrena.- 183 eredua aurkezteko prozedura.**

**Bat**.- 183 ereduaren aitorpen egileak honako agiriak eta euskarriak aurkeztuko ditu:

1.- 183 ereduaren laburpen orriaren bi aleak (administrazioarentzat eta interesdunarentzat). Bi ale horietako bakoitzean Arabako Foru Ogasunak luzatutako identifikazio txartela itsasi behar da horretarako gordetako lekuan. Era berean, aleak behar bezala egongo dira sinaturik, dagozkion lekuetan sinatzailearen identitatea adierazita, bai eta aipatu laburpen orrian eskatzen diren gainerako datuak ere.

Aitorpena jaso behar duen bulegoak 183 aitorpenari zigilua jarri ondoren, aurkezleak laburpen orri horietako bat hartuko du beretzat, interesatuarentzako alea, eredua aurkeztu izanaren egiaztagiritzat balioko baitu.

2.- Ordenagailuz zuzenetan irakurtzeko euskarriaren kanpoaldean txartel bat itsasiko da. Txartel horretan datu hauek jasoko dira, nahitaez hurrenkera honetan:

a) Ekitaldia.

b) Aurkezteko eredua: 183.

c) Aitorpen egilearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ)

d) Aitorpen egilearen izen soziala edo izena.

e) Aitorpen egilearen helbide fiskala, udalerria eta posta kodea.

f) Harremanetan jartzeko pertsonaren abizenak eta izena.

g) Pertsona horren telefono zenbakia eta luzapena.

h) Erregistroen kopurua orotara.

i) 3 1/2-ko disketeetako euskarriaren dentsitatea: 720 KB edo 1.44 MB.

Datu horiek agerrarazteko, nahikoa da datu bakoitzari aurrean bere letra jartzea, aurreko zerrendaren arabera dagokiona, hain zuzen.

Baldin eta fitxategiak zuzenean ordenagailuz irakur daitekeen euskarri bat baino gehiago badu, bakoitzak bere etiketa izan beharko du, hurrenkeran zenbatua: 1/N, 2/N eta abar, non "N" artxiboak (bakarra aurkezle bakoitzeko) dituen euskarrien kopuru guztia baiten. Bigarren ataleko etiketan eta hurrengo ataletako etiketetan nahikoa da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak idaztea.

**Bi**.- Ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriak jasotzen ditugunean, behin-behinekotzat jasoko ditugu, harik eta prozesua egin eta egiaztatu arte.

**Azken xedapen bakarra.**

Honako Foru Agindua Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean, eta lehendabizikoz eragingo die 2002 urtean ordaindutako sariei buruzko informazioa jasotzen duten aitorpenei.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroaren 21a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

- Nombre y apellidos o denominación o razón social y número de identificación fiscal del representante del perceptor premiado cuando se cobren mediante representante premios de titularidad compartida por varios perceptores, cuyo importe global sea superior a 5.000 euros, aún cuando de forma individual, por perceptor y sorteo, no se alcance dicha cuantía. A estos efectos, no tendrán la consideración de representante del perceptor premiado las entidades financieras que efectúen la simple mediación en el cobro del premio.

- Total importe o valoración del premio o premios satisfechos.

- Fecha del sorteo.

**Cuarto.- Lugar y plazo de presentación del modelo 183.**

**Uno**.- El modelo 183 en soporte magnético se presentará, bien directamente en las oficinas de Hacienda Foral de Álava o bien a través del correo certificado dirigido a la mencionada Oficina, llevando obligatoriamente adheridas las etiquetas identificativas que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda.

**Dos**.- La presentación del modelo 183 se realizará en los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con los premios satisfechos en el año natural inmediato anterior.

**Quinto.- Procedimiento para la presentación del modelo 183.**

**Uno**.- El declarante del modelo 183 presentará los siguientes documentos y soportes:

1.- Los dos ejemplares, para la Administración y para el interesado, de la hoja resumen del modelo 183, en cada uno de los cuales deberá adherirse, en el espacio reservado al efecto, la etiqueta identificativa que suministra la Hacienda Foral de Álava. Asimismo, dichos ejemplares deberán estar debidamente firmados, indicando en los espacios correspondientes la identidad del firmante, así como los restantes datos que en la citada hoja–resumen se solicitan.

Una vez sellados por la oficina receptora, el declarante retirará el "ejemplar para el interesado" de la hoja resumen del modelo 183 presentado, que servirá como justificante de la entrega.

2.- El soporte directamente legible por ordenador, que deberá tener adherida una etiqueta en el exterior en la que se harán constar los datos que se especifican a continuación y necesariamente en este orden:

a) Ejercicio.

b) Modelo de presentación: 183

c) Número de identificación fiscal (NIF) del declarante.

d) Razón social o denominación del declarante.

e) Domicilio fiscal, municipio y código postal del declarante.

f) Apellidos y nombre de la persona con quién relacionarse.

g) Teléfono y extensión de dicha persona.

h) Número total de registros.

i) Densidad del soporte en disquetes de 3 1/2: 720 KB ó 1.44 MB.

Para hacer constar los referidos datos bastará consignar cada uno de ellos precedido de la letra que corresponda según la relación anterior.

En caso de que el archivo conste de más de un soporte directamente legible por ordenador, todos llevarán su etiqueta numerada secuencialmente: 1/N, 2/N, etc., siendo N el número total de soportes de que consta el archivo que será único por presentador. En la etiqueta del segundo y sucesivos volúmenes sólo será necesario consignar los datos indicados en las letras a), b), c) y d) anteriores.

**Dos**.- Todas las recepciones de soportes directamente legibles por ordenador serán provisionales, a resultas de su proceso y comprobación.

**Disposición final única.**

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el "BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava" y afectará por primera vez a las declaraciones que contengan la información relativa a los premios satisfechos en el año 2002.

Vitoria-Gasteiz, a 21 noviembre de 2002.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

# PFEZ-TIK SALBUETSITAKO ZENBAIT SARIREN INFORMAZIO AITORPENA

# *DECLARACIÓN INFORMATIVA DE DETERMINADOS PREMIOS EXENTOS DEL IRPF*

Eredua
**183**
*Modelo*

1) Administrazioarentzako alea / *Ejemplar para la Administración* 2) Interesatuarentzako alea / *Ejemplar para el interesado*

**1** IDENTIFIKAZIOA / *IDENTIFICACION*

IDENTIFIKAZIO ETIKETA IPINTZEKO GUNEA
*ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

**2** EKITALDIA ETA AURKEZTEKO MODUA / *EJERCICIO Y TIPO DE PRESENTACION*

Ekitaldia / *Ejercicio* ..........

Aitorpen osagarria / *Declaración complementaria* ....

Ordezko aitorpena / *Declaración sustitutiva* ..........

**3** KONTAKTATZEKO PERTSONA / *PERSONA DE CONTACTO*

DEITURAK ETA IZENA / *APELLIDOS Y NOMBRE*

TELEFONOA / *TELEFONO*

**4** AITORPENAREN LABURPENA / *RESUMEN DE LA DECLARACION*

Zenbat erregistro guztira
*Número total de registros* ---------- **01**

Sarien zenbatekoa edo balioespena guztira
*Total importe o valoración de los premios* ---------- **02**

**5** DATA ETA SINADURA / *FECHA Y FIRMA*

**6** SARRERAKO ERREGISTRO ZIGILUA / *SELLO REGISTRO DE ENTRADA*

RE. 02/257

**P.S.N. / *P.V.P.* 0,06 €**

## 183 EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

**Dokumentu hau idazmakinaz edo boligrafoz bete beharko da, gainazal gogor baten gainean eta letra larriz.**

**Nork aurkeztu behar duen 183 eredua.** 183 eredua Estatuko Loteria eta Apustuek, Autonomia Erkidegoek, Gurutze Gorriak eta Itsuen Antolakunde Nazionalak aurkeztu behar dute, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita hartzaileko eta egindako zozketako 5.000 euro baino gehiagoko zenbatekoaz ordaintzen dituzten sariei buruz.

Baita ere, titulartasuna hartzaile bat baino gehiagok partekatuta daukaten eta ordezkaria dela medio kobratzen diren sariak zerrendatu beharko dira, horien zenbateko osoa 5.000 euro baino handiagoa baldin bada, banakako moduan, hartzaile eta zozketa bakoitzeko, zenbateko horretara iristen ez badira ere. Kasu hauetan, ez da beharrezkoa izango 183 ereduan hartzaileak identifikatzea. Nahikoa izango da kobrantzarako ordezkaria identifikatzea. Ondorio hauetarako, saria kobratzerakoan bitartekaritza soila egiten duten finantza entitateak ez dira saritutako hartzailearen ordezkaritzat hartuko.

**IDENTIFIKAZIOA**
Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak ematen dituen identifikazio etiketak itsatsi behar ditu.

**EKITALDIA ETA AURKEZTEKO MODUA**
Ekitaldia. Aitorpenari dagokion urte naturalaren lau zifrak idatzi behar dira.

**Aitorpen osagarria.** Lauki honetan "X" bat jarri behar da aitorpena aurkeztearen helburua hau baldin bada: ekitaldi bereko eta lehenago aurkeztutako beste aitorpen batean jaso behar ziren baina jaso gabe geratu ziren hartukizunak aitortzea. Aitorpen osagarrian, hori aurkeztera eraman duten jaso gabeko hartukizunak bakarrik sartu behar dira.

**Ordezko aitorpena.** Lauki honetan "X" bat jarri behar da aitorpena aurkeztearen helburua hau denean: ekitaldi bereko eta lehenago aurkeztutako beste aitorpen bat erabat baliogabetu eta ordeztea, hartan datu okerrak adierazi baldin baziren.

**AITORPENAREN LABURPENA**
(01) laukia: **"Zenbat erregistro guztira".** Adieraz ezazu urteko aitorpenak dauzkan 2 motako erregistroen kopuru osoa.
(02) laukia: **"Sarien zenbatekoa edo balioespena guztira".** Adieraz ezazu ordaindutako eta aitorpenean jasotako sarien zenbatekoen eta/edo balioespenen batura osoa.

**DATA ETA SINADURA**
Data eta sinadura jarri behar dira, baita sinatzailearen IFZ, izena, deiturak eta kargua edo izaera ere.

**SARRERAKO ERREGISTRO ZIGILUA**
Dokumentua jasotzen duen administrazioak bete behar du gune hau.

***AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA***

*183 ereduaren aurkezpena Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan egin behar da urtero, urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egunen barruan, aurreko urte naturalean ordaindutako sariei buruz.*

## *INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL MODELO 183*

***Este documento deberá cumplimentarse a máquina, o utilizando bolígrafo, sobre superficie dura y con letras mayúsculas.***

***Obligados a presentar el modelo 183.*** *Están obligados a presentar el modelo 183 Loterías y Apuestas del Estado, las Comunidades Autónomas, la Cruz Roja y la Organización Nacional de Ciegos, respecto de los premios que satisfagan exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas por importe superior a 5.000 euros por perceptor y sorteo celebrado.*

*También deberán relacionarse los premios de titularidad compartida por varios perceptores que se cobren mediante representante, cuyo importe global sea superior a 5.000 euros, aun cuando de forma individual, por perceptor y sorteo, no se alcance dicha cuantía. En estos casos no será necesaria la identificación de los perceptores en el modelo 183, siendo suficiente la identificación del representante en el cobro. A estos efectos, no tendrán la consideración de representante del perceptor premiado las entidades financieras que efectúen la simple mediación en el cobro del premio.*

***IDENTIFICACIÓN***
*Deberá adherir las etiquetas identificativas que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.*

***EJERCICIO Y TIPO DE PRESENTACIÓN***
***Ejercicio.*** *Se consignarán las cuatro cifras del año natural al que corresponda la declaración.*

***Declaración complementaria.*** *Se consignará una "X" en esta casilla cuando la presentación de la declaración tenga por objeto incluir percepciones que, debiendo haber figurado en otra declaración del mismo ejercicio presentada anteriormente, hubieran sido totalmente omitidos en la misma. En la declaración complementaria solamente se incluirán las percepciones omitidas que motivan su presentación.*

***Declaración sustitutiva.*** *Se consignará una "X" en esta casilla cuando la presentación de la declaración tenga por objeto anular y sustituir completamente a otra declaración anterior del mismo ejercicio en la cual se hubieran consignado datos inexactos o erróneos.*

***RESUMEN DE LA DECLARACIÓN***
*Casilla (01):* ***"Número total de registros".*** *Consigne el número total de registros de tipo 2 que contiene la declaración anual.*
*Casilla (02):* ***"Total importe o valoración de los premios".*** *Indique la suma total de los importes y/o de las valoraciones de los premios satisfechos incluidos en la declaración.*

***FECHA Y FIRMA***
*Se hará constar la fecha y firma, así como el N.I.F., nombre y apellidos y cargo o condición del firmante.*

***SELLO REGISTRO DE ENTRADA***
*Espacio a cumplimentar por la Administración receptora del documento.*

***LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN***

*La presentación del Modelo 183 se realizará en el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava, durante los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con los premios satisfechos en el año natural inmediato anterior.*

**II eranskina**

183 EREDUA ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO EUSKARRIAN AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden sari jakin batzuen informazio-aitorpena (183 eredua) aurkezteko, honako baldintzak beteko dituzte ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarriek:

A) EUSKARRI MAGNETIKOEN EZAUGARRIAK

Kartutxo magnetikoa.

Mota: IBM-3480 edo bateragarria.
Pistak: 18 edo 36.
Luzera: estandarra edo hedatua (3490E).
Konprimatzea: aukerakoa (IDRC estandarra).
Kodea: EBCDIC, letra larritan.
Etiketak: etiketarik gabe.
Markak: zintaren hasieran eta amaieran.
Erregistroak: 250 kokaleku:
Blokeo faktorea: 10.

Disketeak.

3 1/2”-koak, alde bikoak. Dentsitate bikoitza (720KB). MS-DOS sistema eragilea eta bateragarriak.

3 1/2”-koak, alde bikoak. Dentsitate handia (1.44 MB). MS-DOS sistema eragilea eta bateragarriak.

ASCII kodea letra larritan, kontrol edo tabulazio karaktererik gabe.

250 kokalekuko erregistroak.

3 1/2”-ko disketeek fitxategi bakarra izango dute, PRExxxx izenekoa, non xxxx aitorpenari dagokion zerga ekitaldiaren lau zifrak izango baitira. Fitxategi bakar horretan jasoko dira erregistro mota ezberdinak, B) atalean aipatzen diren hurrenkeran.

Fitxategiak diskete bat baino gehiago hartzen badu, behar beste fitxategitan zatitu beharko da. Zatikako fitxategiaren bakoitzari PRExxxx.NNN (NNN=001, 002 …) izena jarriko zaio, non xxxx aitorpenari dagokion ekitaldiko lau zifrak izango baitira eta NNN fitxategiaren hurrenez hurreneko zenbakia, 001-etik hasita.

Zatikako fitxategiek erregistro osoak jasoko dituzte beti, hau da, ezingo da fitxategia zatitu zatikako fitxategietan erregistro osatugabeak utzirik.

B) DISEINU LOGIKOAK

ERREGISTROEN DESKRIBAPENA

Bi erregistro mota egongo dira aitorle bakoitzarentzat. Lehen kokalekuaren arabera bereiziko dira biak, eta horretarako, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. mota: Aitorlearen erregistroa: Identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpen orria. 1 erregistro motako diseinua, atal hauetan bertan aurrerago, eta foru agindu honen eranskinean jasotzen dena.

2. mota: Hartzailearen erregistroa. 2 erregistro motako diseinua, atal hauetan bertan aurrerago, eta foru agindu honen eranskinean jasotzen dena.

Aurkezteko hurrenkera erregistro motaren araberakoa izango da. 1 motako erregistro bakarra egongo da, eta 2 motakoak, berriz, hartzaileak adina

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretara joango dira lerrokaturik, eta eskuinaldean zuriunez beteta, letra larritan, inolako karaktere berezirik gabe eta bokaletan azentu markarik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodea erabiliko da. Horren arabera, «Ñ» letrak ASCII209 (Hex.D1) balioa izango da, eta «Ç» letrak (ze hautsi maiuskula) ASCII199 (Hex.C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinean lerrokatuta joango dira, eta ezkerretara zeroz beteta, inolako zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiek izango dute edukia, baldin eta eremuaren deskribapenean bestelakorik esaten ez bada. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfanumerikoak nahiz alfabetikoak zuriunez.

183 ereduan hartzaile berari ordaindutako sariak jaso behar direnean, sari horiek kode edo hartukizun desberdinei badagokie, behar beste erregistro bete beharko dira. Hartara, erregistro horietako bakoitzak kode eta era bereko sarien datuak besterik ez dute islatu behar.

**Anexo II**

DISEÑOS FÍSICOS Y LÓGICOS PARA LA PRESENTACIÓN DEL MODELO 183 EN SOPORTE DIRECTAMENTE LEGIBLE POR ORDENADOR

Los soportes directamente legibles por ordenador para la presentación de la declaración informativa anual de determinados premios exentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (modelo 183), habrán de cumplir las siguientes características:

A) CARACTERÍSTICAS DE LOS SOPORTES MAGNÉTICOS

Cartucho Magnético

Tipo: IBM-3480 o compatible
Pistas: 18 ó 36
Longitud: standard o extendida (3490E)
Compresión: Opcional (standard IDRC)
Código: EBCDIC, en mayúsculas.
Etiquetas: sin etiquetas.
Marcas: en principio y fin de cinta.
Registros de: 250 posiciones.
Factor de bloqueo: 10

Disquetes

De 3 1/2” doble cara. Doble densidad (720 KB) Sistema operativo MS-DOS y compatibles.

De 3 1/2” doble cara. Alta densidad (1.44 MB) Sistema operativo MS-DOS y compatibles.

Código ASCII en mayúsculas sin caracteres de control o tabulación.

Registros de 250 posiciones.

Los disquetes de 3 1/2” deberán llevar un sólo fichero, cuyo nombre será PRExxxx, siendo xxxx las cuatro cifras del ejercicio fiscal al que corresponde la declaración, conteniendo este único fichero los diferentes tipos de registros y en el orden que se menciona en el apartado B).

Si el fichero ocupa más de un disquete, deberá particionarse en tantos ficheros como sea necesario. Cada uno de los ficheros parciales tendrá la denominación PRExxxx.NNN (NNN=001,002,...), siendo xxxx las cuatro cifras del ejercicio fiscal al que corresponde la declaración y NNN el número consecutivo del fichero comenzando por el 001.

Los archivos parciales contendrán siempre registros completos, es decir, nunca podrá particionarse el fichero dejando registros incompletos en los ficheros parciales.

B) DISEÑOS LÓGICOS

DESCRIPCIÓN DE LOS REGISTROS

Para cada declarante se incluirán dos tipos diferentes de registro, que se distinguen por la primera posición, con arreglo a los siguientes criterios:

Tipo 1: Registro del declarante: datos identificativos y resumen de la declaración. Diseño de tipo de registro 1 de los recogidos más adelante en estos mismos apartados y Anexo de la presente Orden Foral.

Tipo 2: Registro de perceptor: Diseño de tipo de registro 2 de los recogidos más adelante en estos mismos apartados y Anexo de la presente Orden Foral.

El orden de presentación será el del tipo de registro, existiendo un único registro del tipo 1 y tantos registros del tipo 2 como perceptores.

Todos los campos alfanuméricos y alfabéticos se presentarán alineados a la izquierda y rellenos de blancos por la derecha, en mayúsculas sin caracteres especiales y sin vocales acentuadas.

Para los caracteres específicos del idioma se utilizará la codificación ISO-8859-1. De esta forma la letra “Ñ” tendrá el valor ASCII 209 (Hex.D1) y la “Ç” (cedilla mayúscula) el valor ASCII 199 (Hex.C7).

Todos los campos numéricos se presentarán alineados a la derecha y rellenos a ceros por la izquierda sin signos y sin empaquetar.

Todos los campos tendrán contenido, a no ser que se especifique lo contrario en la descripción del campo. Si no lo tuvieran, los campos numéricos se rellenarán a ceros y tanto los alfanuméricos como los alfabéticos a blancos.

Cuando deban relacionarse en el modelo 183 premios satisfechos a un mismo perceptor que correspondan a diferentes claves o tipos de percepción, deberán cumplimentarse tantos registros como sea necesario, de forma que cada uno de ellos refleje exclusivamente los datos de los premios correspondientes a una misma clave y tipo.

183 EREDUA

A- 1 ERREGISTRO MOTA: AITORPEN EGILEAREN ERREGISTROA.

(KOKALEKUAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIBAPENA)

| KOKALEKUAK | IZAERA | EREMUEN DESKRIBAPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | ERREGISTRO MOTA<br>Finkoa, 1 zenbakia |
| 2-4 | Numerikoa | AURKEZPEN EREDUA.<br>Finkoa, «183» |
